

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

Zer gertatu zen Loiolan?

Atrebentzia guztiarekin, propaganda egitera nator gaur. Izan ere, egundoko liburuak suertatzen zaizkigu batzuetan esku artean, editore-lanbide honetan.

Espainiako kultura ministro batek bere oroitzapenetan kontatu zuen, bere karguaren pribilegioez baliatu zela behin, Granadako Alhambra jauregia itxita zegoela, berak bakarka bisitatzeko. Era berean, gure ofizio xumeak horixe du ederrena: beste inork baino lehenago edukitzea begien aurrean egiazko harribitxiak.

Adibidez, gogoratzen naiz Azurmendik *Espainolak eta enuskaldunak* tituluko paper-totxoia ekarri zidanean, esanez seguru asko ez zitzaiola inori interesatuko baina... eta zer-nolako emozioz irakurri nindoan makinaz jotako orri horitu haiek. Edo *Hmy ulla nyba majah yahoo* bilduma miragarri hura iritsi zitzaidanean, *Kiromantzidxa* poema irakurtzean sentituriko zirrara, pentsatuz hura aurretik ia beste inork ez zuela ikusi, eta agian nire zuzenketa-proposamen batek testua hobetzen lagundu zezakeela. Edo autore ezezagun baten lehen testuan barnertzean, Elorriagaren *SPrako tranbian* esaterako, deskubrimendu harrigarri bat egiteak ematen duen ezusteko poza...

Askoz gehiago luzatu nezake zerrenda, baina bere horretan utziko dut, gaur dakarkizuedan lana aipatzeko: *Loiolako begiak*, Ima-



DANI BLANCO

nol Muruarena. Aurrekoak ez bezala, hau ez da literatura, primeran idatzia dagoen arren; kronika xehe bat da, 2006ko udazkenean Jesulagunen basilikan EAJ, PSE-EE eta Batasunako ordezkariak egin zituzten elkarrizketei buruz, baita aurretik eta ondotik ETArek eta Espainiako Gobernuaren artean izandako hartu-eman eta gorabeherei buruz ere.

Muruaren berri dakiena ez da harrituko liburu izugarria dela esaten badut: Palestina eta Belfasti buruzko erreportajeetan agerian utzi zuen gatazkei seriotasunez eta gizatasunez heltzeko trebetasuna; urtetan bere prentsako lanak segitu ditugunok badakigu kazetari bikaina dela, elkarrizketatzaile fina eta analista zorrotza. Liburu hau apartekoa da, ordea, orain arte oso jende gutxi zekiena kontatzen baitu. Urkullu, Egiguren eta Otegiarekin izandako solasaldi luzeetan oinarrituta, eta hainbat iturritatik osatuta, azken bake-prozesuaren erretratu zehatza egin du, erdi ezkutuaren zeuden edo guztiz ezezagunak ziren datu ugari plazaratuz. Guztiok zipriltintzen gaituen egoera politiko petral honekin interesatutako edonorentzat ezinbesteko dokumentua.

Ondorioak ateratzea norberaren esku utziko dugu. Baita hurrengo saialdirako ikasgaia ateratzea ere. ■



Liburu hau apartekoa da,
orain arte oso jende gutxi
zekiena kontatzen baitu.

Urkullu, Egiguren eta
Otegiarekin izandako solasaldi
luzeetan oinarrituta



TXANDAN

Andoni Mujika

Gora poloa



Ume-artik, nire abertzaletasun-bidean gida izan ditudan

ametsak zalantzan jartzen dituzte eragile "abertzale" batzuek. Beti dago zer bait, beti dago aitzakiaren bat, oztoporen bat abertzaleon batasunerako, salto kualitatiboetarako. Bietako bat: edo eragile hauek ez dira abertzale edo euren txiringoa helburuaren gainetik jartzen dute. Egia da prozesuak ez direla norberaren etika guztietara egokitzen; egia da poloaren bultzatzaileek ere izan dezaketela euren polotoa errentabilizatzeko tentazioa, eta baita, "mendekuetarako" gogoren bat ere. Baina abertzaleok albisteak daukan

potentziala kalibratzera deituta gaude. Esango nuke hori dela begiratu behar dena batez ere.

Uste dut prozesua ez dela *inmakulatua* izango, halere uste dut aitortu behar dela ilusioa pizteko eta hegemonia minimoa sortzeko daukan sedukziorako indarra. Eta bestetik, katalizatzaile da: bat, abertzaleen arteko batasunak herri honetan sortzen duen ilusio historikoa-ekin eta bi, izpiritu abertzale *latentearekin*. Gauza batzuk ez dira lupaz begiratu behar, ezta betaurreko ere. *Begibistakoaren* eskalan daude. *Zazpiak* baterantz hurbiltzen edo urrutiratzen gaituzten da kalkulu printzipala; abertzaleentzat, jakina. ■